

EAE-KO IKASTETXE PUBLIKOETAKO JANTOKIEN INKESTAREN EMAITZAK



1 SARRERA / TESTUINGURUA

2 DATU OROKORRAK

3 ASEBETETZEA JANTOKI EREDUAREKIN

5 JANARIAREN KALITATEA ETA BARIETATEA, MENUA

7 OHITURA OSASUNGARRIAK

8 KOMUNIKAZIOA

10 DENBORA, ORDUTEGIA, AZPIEGITURAK, PERTSONALA

15 ELIKAGAIEN JATORRIA

18 DIETA BEREZIAK

19 PARTE HARTZEA

20 ONDORIO BATZUK

SARRERA/ TESTUINGURUA

Egunero 91.000 ikaslek jaten dute EAEko ikastetxe publikoetako jantokietan. 2000. urtetik, egun indarrean dagoen araudia martxan jarri zenetik (2000ko martxoaren 1eko agindua), 10.000 jankidetik egungo 90.000ra pasatu gara, **90 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin** ikasturteko (familien eta Eusko Jaurlaritzaren aportazioak). Zerbitzuak halako bolumen handia izan arren, gaur egunera arte ez zaie egin gogobetetze inkestarik familiei. Eusko Jaurlaritzak auditoretza bat egiten du urtero eta inkesta bat pasatzen dio jantokiko arduradunari (ikastetxeko irakasle bat). Hala eta guztiz ere, orokortu egin dira zerbitzuari buruzko keak, egungo ereduak eskola-komunitateak ez dituela asebetetzen erakutsiz. Hori dela eta, familiei zuzendutako asebetetze inkesta bat egin du EHIGEk.



DATU OROKORRAK

Inkesta hau familientzat eskuragarri egon da 2017ko azaroan EHIGE konfederazioa eta Baikara, BIGE eta Denon Eskola federazioen web guneetan.

4.519 erantzun jaso ditugu guztira, horietatik **4.472** dira baliozkoak. Ondorioz, gutxienez **251 jantokitako** familien iritziak ditugu 506tik.

- Erantzunen **%73,9a** (3.306) **catering** zerbitzuari dagokio. Kudeaketa eredu honetan enpresak sukalde zentral batean prestatzen ditu menuak eta ikastetxeetara garraiatzen dira hotzean edo beroan. Ikastetxean zerbitzatu baino ez zaie egiten ikasleei.
- **%23,3** (1.042 erantzun) sukaldea duten ikastetxeei dagokie. Kasu hauetan menuak ikastetxean bertan prestatzen dira catering enpresak eramandako lehengaiekin.
- **%2,77** (124 erantzun) kudeaketa propioa duten ikastetxeak edo proiektu pilotuak dira. Kasu haue-
tan IGEak kudeatzen du jantokia, menuak ikaste-
txean prestatzen dira eta lehengaien portzentaia
handi bat bertakoa eta ekologikoa da.

Erantzunen gehiengoa **catering sistemarena** da, **eredu hedatuena** delako.

Bestalde:

- **Inkesten %17,3 euskaraz** egin da, **%82,56 gazte-laniaz**.
- **Emakumeek** erantzun dute inkesten **%85,9, gizonek %14,1**.

Familien iritzia ezagutu nahi izan dugu eskola-jantokiaren inguruko hainbat gaien inguruan: asebetetze orokorra, funtzionamendua, jakiak, espazioak, eta abar. Izan ere, jantokiaren helburua ez da soilik ikasleei jaten ematea, **funtzio pedagogikoa** du ere.


8 blokeetan antolatutako 21 galdera ditu inkestak:

1. Asebetetzea orokorra
2. Kantitatea eta barietatea: egoskariak, fruta eta barazkiak, menua orokorrean.
3. Ohitura osasungarriak
4. komunikazioa
5. Denbora, ordutegia, azpiegituak, pertsonala, ondorengo jarduerak.
6. Elikagaien jatorria
7. Dieta bereziak
8. Parte hartzea

1/ ASEBETETZEA JANTOKI EREDUAREKIN

Galdera: Jangela mota honekin pozik zaude?


Orokorrean, eta kudeaketa ereduak desberdindu gabe, **familiak ez daude pozik** jantoki-zerbitzuarekin (%59 ez dago pozik, %38 bai).



1/ ASEBETETZEA JANTOKI EREDUAREKIN

Hiru ereduak kontuan hartuz gero, hauxe esan dezakegu:

- **Catering zerbitzua duten familien %30 dago soilik pozik.** Sukaldea duten ikastetxeen kasuan portzentaia hau %59ra igotzen da.
- **Kudeaketa propioa/proiektu pilotua** duten ikastetxeen kasuan asebetetzea %80koa da.
- Kudeaketa propioa/proiektu pilotua da familien hobekien baloratzen duten eredu, in situ sukaldea ondoren.




"FAMILIAK EZ DAUDE POZIK EGUNGO EREDUAREKIN, KUDEAKETA PROPIOA ETA SUKALDEA IZATEA DA HOBEKIEN BALORATZEN DUTENA"

2/ JANARIAREN KALITATEA ETA BARIETATEA, MENUA

Atal honetan kantitatea, barietatea eta menuarekiko asebetetzea aztertzen dira galdera hauen bidez: **janariaren kantitatea egokia da zure seme-alabaren adinerako?, barazki kopurua egokia da?, eta frutarena?, lekaleena?, zure seme-alabaren jangelan jaten duten menuarekin pozik zaude?**

- **Kantitateari** dagokionez, catering zerbitzua da asebetetze maila txikiena duena (%48), ondoren in situ zerbitzua (%65). Kudeaketa propioa/proiektu pilotuak dira hobekien baloratzen direnak (%82).



“IKASTETXEAN SUKALDEA DUTEN FAMILIAK DIRA ASEBETETZE MAILA HANDIENA DUTENAK”


“KUDEAKETA PROPIOA /PROIEKTU PILOTUA DUTEN IKASTETXEETAKO FAMILIAK DIRA SOILIK POZIK DAUDENAK (%82)”

2/ JANARIAREN KALITATEA ETA BARIETATEA, MENUA

- **Barietateari** dagokionean pozik agertzen dira familiak hiru ereduetan, baina desberdintasun garrantzitsuak daude. Lekaleen kasuan, esaterako, catering zerbitzuan %72ko asebetetzea dago eta kudeaketa propioa/proiektu pilotuan %93koa.

“KUDEAKETA PROPIOA / PROIEKTU PILOTUA DUTEN FAMILIAK DIRA GUSTOEN DAUDENAK JANARIAREN BARIETATEAREKIN (%93)”

- **Menuaren** satisfakzio orokorrari dagokionez, errepikatu egiten da proportzioa: catering ereduak suspenditu egiten du (familien %35a soilik dago pozik), in situ ereduak %57a dago pozik eta kudeaketa propioa/proiektu pilotuetan %82ra iristen da satisfakzioa.




“KUDEAKETA PROPIOA – PROIEKTU PILOTUA DUTEN FAMILIAK DIRA MENUAREKIN GUSTOEN DAUDENAK (%82), CATERING ZERBITZUA DUTENEN KASUAN %35RA JEISTEN DA SATISFAKZIOA.”

3/ OHITURA OSASUNGARRIAK

Galdera: Zure seme-alabek ohitura osasungarriak hartzen al dituzte (garbitasuna, bizikidetasuna...)?

- Aurreko galderetan bezala, desberdintasunak daude hiru ereduen artean. Hala ere, galdera honetan ez dira hain adierazgarriak.
- Ia familien erdiak, eredua edozein izanda, uste du ohitura osasungarriak hartzen direla jantokian.




4/ KOMUNIKAZIOA

Galderak: Menuari buruz jasotzen duzun informazioarekin pozik zaude?, Zure seme-alabak eskola-jangelan nola jaten duen azaltzen duen txostena jaso nahi zenuke?

Eskola menuari buruzko informazioari dagokionean, kontuan izan behar da catering enpresak kudeatzen dituen ikastetxeen kasuan enpresa bera dela informazio hori ematen duena. Kudeaketa propioa edo proiektu pilotua duten ikastetxeen kasuan IGEek egiten dute lan hori. Beraz, bi eredu hauek soilik desberdindu ditzakegu: informazioa kudeaketa zuzenaren kasuan eta informazioa kudeaketa propioa/proiektu pilotuaren kasuan.

- Kudeaketa propioa/proiektu pilotua duten familien %77a pozik dago, kudeaketa zuzenaren kasuan %69,6ko satisfakzioa dago.



“KUDEAKETA PROPIOA-PROIEKTO PILOTOA DUTEN FAMILIAK DIRA GUSTOEN DAUDENAK JASOTZEN DUTEN INFORMAZIOAREKIN ESKOLAKO MENUARI BURUZ”

4/ KOMUNIKAZIOA

- Familiek euren seme-alabek jaten dutenari buruzko **txostena** nahi dute eredu guztietan.




**"FAMILIEK TXOSTENA JASO NAHI DUTE
SEME-ALABEK NOLA JATEN DUTEN JAKITEKO"**

5/ DENBORA, ORDUTEGIA, AZPIEGITURAK, PERTSONALA

Galderak: Jateko nahiko denbora daukate ikasleek?, Jangela barik geratzen den ikaslerik ba dago ikastetxean?, Zer iruditzen zaizkizu jan ondoren egiten diren jarduerak?, Begiraleek formakuntza egokia jasotzen dutela uste al duzu?

Aurreko ataletan bezala, ez dugu desberdintasunik egingo jantoki-eredu desberdinen artean eta datu globalak izango ditugu kontuan.


- Jateko **denborari** dagokionean, familien %40ak uste du nahikoa dela.
- Azpimarragarria da familien %35ak uste duela jantokiaren ahalmenak baldintzatzen duela denbora, kasu batzuetan txandak egiten direlako.



**“TXANDEN KOPURUAK
BALDINTZATZEN DU JATEKO DENBORA”**

5/ DENBORA, ORDUTEGIA, AZPIEGITURAK, PERTSONALA


- Jantokiaren **ahalmenari** dagokionez, familien %45ak ez du informaziorik.
- %45ak uste du ez dagoela plaza arazorik.



"FAMILIEK INFORMAZIO GUTXI DAUKATE ESKOLA-JANTOKIAREN AHALMENARI BURUZ ETA PLAZARIK EZ DELA FALTA USTE DUTE"


5/ DENBORA, ORDUTEGIA, AZPIEGITURAK, PERTSONALA

- Jantoki orduan egiten diren **jardueri dagokionean**, kontuan izan behar da batez ere gurasoen elkarteak antolatzen dituztela, ez ikastetxeek.
- %37ak uste du nahiko direla eta %23ak ez direla nahiko.
- %23an ez dago jarduerarik.



5/ DENBORA, ORDUTEGIA, AZPIEGITURAK, PERTSONALA


- **Begiraleei** dagokienean, ardura Eusko Jaurlaritzarena da, berak zehazten baiditu ratioak. Familien %47ak uste du ez direla nahiko. Azpimarragarria da %31ak ez dakiela nahiko diren edo ez.



**"FAMILIEN % INPORTANTE BATEN USTEZ
BEGIRALEEN KOPURUA EZ DA NAHIKOA"**

5/ DENBORA, ORDUTEGIA, AZPIEGITURAK, PERTSONALA

- **Prestakuntzari** dagokioez, Eusko Jaurlaritza eta enpresen ardura, familien %55ak uste du hobetu daitekeela edo ez dela nahikoa (%30ak uste du hobetu behar dela eta %25ak ez dela prestakuntza egokia jasotzen).
- Familien %37ak ez daki prestakuntza egokia den edo ez.




**“FAMILIEN ERDIAK USTE DU BEGIRALEEK
JASOTZEN DUTEN FORMAKUNTZA EZ DELA NAHIKO”**

6/ ELIKAGAIEN JATORRIA

Galderak: Zure seme-alabek jaten dituzten elikagaiak nondik datozen jakitea garrantzitsua dela uste duzu?, Zer iruditzen zaizu eskolan elikagai ekologikoak sartzea?, Garrantzitsua al da zuretzat elikagaiak bertakoak eta ikastetxean prestatu-takoak izatea?


- Familiek elikagaien jatorriari ematen dioten garrantziari dagokionean, iritzia ahobatezkoa da: %94arentzat garrantzitsua da.



"FAMILIEN %94AREN USTEZ GARRANTZITSUA DA JAKITEA JANTOKIAN JATEN DIREN ELIKAGAIEN JATORRIA"

6/ ELIKAGAIEN JATORRIA


- **Elikagai ekologikoak sartzeari dagokionean, familien %82 alde dago**



“FAMILIEN %82AK USTE DU ELIKAGAI EKOLOGIKOAK SARTU BEHAR DIRELA ESKOLA-JANTOKIKO MENUAN”

6/ ELIKAGAIEN JATORRIA

- Bertako produktu eta ikastetxean sukaldatzeari dagokionean, familien %93 alde dago.




**“FAMILIEN %93AK ESKOLAN SUKALDATZEA
ETA BERTAKO PRODUKTUAK NAHI DITU”**

7/ DIETA BEREZIAK

Galderak: Noizean behineko gaixotasunentzako menurik ba dago (gastroenteritis...)?, Zure seme-alabak intolerantziarik izatekotan dieta bereziak kontuan hartzen dira?

- **Noizean behineko gaixotasune**i dagokienean, familien %44ak ez daki kasu hauetarako menu berezirik ote dagoen.
- Ba daude desberdintasunak ereduaren artean. Catering sistema duten kasuetan da aukera hau gutxienetan ematen dena, janaria ikastetxetik kanpo egiten baita.



“FAMILIEK INFORMAZIO GUTXI DAUKATE NOIZEAN BEHINEKO GAIXOTASUNENTZAKO MENU EI BURUZ”


- **Dieta bereziei** dagokienean, familien %44ak uste du kontuan hartzen direla.
- Familien %37,6ak ez daki aukera hau ba dagoen edo ez.

“FAMILIEK EZ DAKITE NOIZEAN BEHINEKO GAITXOTASUNENTZAKO MENUAK DAUDEN EDO EZ”

8/ PARTE HARTZEA

Galdera: Familiok eskola-jantokiaren funtzionamenduan parte hartu behar dugula uste al duzu?

- Familien %86ak uste du familiek parte hartu behar dutela jantokiaren funtzionamenduan. Familien %20ak uste du kudeaketan ere parte hartu behar dutela eta %18ak parte hartu behar dutela kudeatu gabe.



“FAMILIEN GEHIENGO HANDI BATEK USTE DU PARTE HARTU BEHAR DUTELA JANTOKIAREN FUNTZIONAMENDUAN, KUDEAKETAN BARNE”

ONDORIO BATZUK

Eskola-jantokia duten ikastetxeen erdia baino gehiagoren familien iritziak jasota, hauxe ondorioztatu dezakegu:

- Gaur egungo ereduak ez ditu asetzen familiak. Gehiengoak sukaldea nahi du ikastetxean (%37ak soilik du sukaldea gaur egun).
- Catering sistema duten familien %35 soilik dago pozik zerbitzuarekin.
- Kudeaketa propioa duten ikastetxeetako erantzun gutxi jaso ditugun arren (oso esperientzia mugatuak dira egun) balorazio onak jasotzen dituzte arlo guztietan.
- Seme-alabek nola jaten duten azaltzen duen txostena nahi dute familiek.
- Familiek bertako produktuak eta ekologikoak nahi dituzte.
- Azpimarragarria da familien interesa elikagaien jatorria ezagutzeari buruz (%92).
- Familiek uste dute giza baliabide gutxi daudela eta prestakuntza hobetu daitekeela.
- Gehiengo handi batek uste du familiek parte hartu behar dutela jantokian (%86).
- Sukaldea duten jantokiak dira hobekien moldatzen direnak familien beharretara, noizean behineko gaixotasunak, esaterako.

